

BEZEROEKIKO HARREMANAK



Gure enpresak bezeroarekiko arreta eskainiko du, eta bezeroak edozein unetan eskura izango du gure laguntza eta gure arreta, gure produktuen salmentari buruz sortzen diren zalantzetako edozeinekin. Gure enpresarentzat oso garrantzitsua da produktuaren iraupenaren konfidantza ematea; hori dela eta, saldutako produktu bakoitzarekin bi urteko bermea eskainiko dugu (bermeak hainbat irizpide ditu).

Bezeroak gurekin harremanetan egoteko, enpresaren webgunean atal berezi bat gaituko dugu non gurekin harremanetan jartzeko aukera emango den, e-mail baten, telefono baten eta informazio-kutxa baten bitartez.

Beste alde batetik, bezeroarekin harremanetan egon eta gero inkesta bat bidaliko dugu, eta modu honetan enpresa hobetzeko proposamenak jaso ahal izango ditugu, bezeroen iritzia eta hobetze-proposamenak entzun eta gero.